

PAS...
S...
27 MAR 22
ZBK...
15/1

2. 10/10/10



Puede Pasaia(k) Ahal Du Udal Taldeak mozio hau aurkezten du, hurrengo udalbatzarraren gai-zerrendan sartu, eta Udalbatzak azter eta onar dezan.

PROPOSAMENA

Puede Pasaia(k) Ahal Du udal taldeak udal gobernuari eskatzen dio tasa berri bat sortzeko, energia-garraiorako instalazioen enpresa titularrek jabari publikoaren aprobetxamenduagatik ordaindu beharrekoa, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzari eransteke.

ZURIBIDEA

Jabari publiko izeneko kontzeptu juridikoa hiru oinarriren gainean eraikitzen da. Lehenengoa, titulartasuna. Guri dagokigun kasuan, udal administrazio publiko baten jabetzakoa dena. Bigarrena, horren erabilera edo zerbitzu publikoarekiko lotura. Eta azkena, araubide juridiko bereziarekin zerikusia duena, besterenezintasun, enbargaezintasun eta preskribaezintasunean oinarritutakoa. Guri dagokigun kasuan linea elektrikoak edo gas-hodiak arautzen dituen tokiko jabari publikoaz hitz egingo dugu, eta teknikoki eraikuntza gisa katalogatuko ditugu.

Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 20. artikuluan ezartzen da bai argindar konpainiek eta bai gas-, ur- eta hidrokarburo-enpresek airez, lurretik edo lurrazpitik hornidura ematen dieten udalei udalerrian duten fakturazioaren % 1,5 ordaindu behar dietela. Era berean, lege horrek ezartzen du argindar-konpainiek udalerria zeharkatzeagatik dagokien tasa ordaindu behar dutela, nahiz eta zuzenean udalerrri horri hornidurarik ez eman.

Tokiko ogasunak arautzeko ekimen honi erantzunez, 2014an argindar-konpainia pribatuek udal batzuen aurkako kereilak aurkeztu zituzten; tasa horien ordainketa saihestearren, onartzen ez dituztelako edo gehiegizkotzat jotzen dituztelako. Arazo horren erantzun judiziala Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia loteslearen bidez erabakitzen ari da: auzitegi horrek emandako azken epaietan legezkotu egin dira Estatuko zenbait udaletako zerga-ordenantzak, udal erakunde horien balorazioak onartu dira, eta teknikoki onartu da linea elektrikoak eta kanalizazioak "eraikuntzak" direla,

jabari publikoaren erabilera ordaindu beharreko tasaren oinarri ezargarrria kalkulatzeko ondorioetarako; era berean, onartzen da udal erakundeek legez zergapetu nahi dutela energiaren garraioan eta banaketan datzan erabilera industrial garbi bat. Azken batean, Auzitegi Gorenak erabaki du tasa horiek guztiz bat datozela legezko eskakizunekin.

Azkenik, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa hau diru-sarrera gehigarria eta funtsezkoa izan daiteke gure udalarentzat. Gainera, itzulkin sozial handiagoa ziurtatuko litzateke, erakunde pribatuen jardueren zerga-bilketaren bidez. Horiek horrela, uste dugu Pasaia(k) Udalak erantzukizunez jokatu behar duela, zuzenbidearekin bat, zerga-bilketako neurri berri hau arautuz eta aplikatuz.

ESKAERA

Azaldutako guztiagatik, Puede Pasaia(k) Ahal Du udal taldeak eskatzen du beharrezko ikerketa eta gestioak has daitezela, dagokion zerga-ordenantzaren bidez, tasa berri bat onar dadin, energia elektrikoa, gasa edo hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen enpresa titularrek udal jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamenduagatik ordaindu beharrekoa, Auzitegi Gorenak emandako epaietan jasotzen den bezala.

Pasaian, 2017ko martxoaren 17an



Izpta. Nerea González Bastardo
Puede Pasaia (k) Ahal du taldearen eleduna

Moción que presenta el grupo municipal ~~Puede~~ Pasaia(k) Ahal Du, para su inclusión en el orden del día del próximo pleno de marzo del ayuntamiento de Pasaia, para su debate y aprobación sobre:

PROPUESTA

El Grupo Puede Pasaia(k) Ahal Du insta al Gobierno Municipal a incluir una tasa que contemple el aprovechamiento del dominio público por parte de las empresas titulares de instalaciones de transporte de energía, como un nuevo epígrafe dentro de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Utilización Privada y Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal.

JUSTIFICACIÓN

El concepto jurídico denominado “dominio público” se construye en base a tres elementos determinantes. En primer lugar la titularidad, que en nuestro caso concreto se refiere al hecho de pertenecer a una administración pública municipal; en segundo lugar, la afectación respecto a su uso o servicio público y por último, lo relacionado a su régimen jurídico especial, basado en la inalienabilidad, la inembargabilidad y la imprescriptibilidad. En el caso específico que nos ocupa, haremos referencia al dominio público local que regula los tendidos eléctricos o canalizaciones de gas, catalogándolos técnicamente como construcciones.

En base a la Ley Reguladora de las Haciendas Locales establecida por el Real Decreto Legislativo 2/2004 y haciendo referencia a su artículo 20, se establece que tanto las compañías eléctricas, como las empresas de gas, de agua y de hidrocarburos deben pagar a los municipios a los que suministren, vía aire, suelo o subsuelo, un 1,5 por ciento de su facturación en el término local. A su vez, esta ley también establece que las compañías eléctricas tienen la obligación de pagar la tasa correspondiente por atravesar el término municipal aunque no suministren directamente a esa localidad.

Como respuesta a esta iniciativa reguladora de las haciendas locales, desde el año 2014 las compañías eléctricas privadas se han querellado contra algunos ayuntamientos para evitar el pago de estas tasas, por no reconocerlas o por considerarlas como desproporcionadas. De este modo, la respuesta judicial a esta problemática se está dando en forma de jurisprudencia vinculante del Tribunal Supremo, constatando que en las últimas sentencias dictadas por dicho tribunal se han legitimado legalmente las ordenanzas fiscales de varios ayuntamientos del Estado, aceptando la valoración de dichas instituciones municipales y reconociendo técnicamente

que las líneas eléctricas y las canalizaciones son efectivamente "construcciones" a efectos del cálculo de la base imponible de la tasa por utilización del dominio público; reconociendo a su vez, que lo que pretenden las instituciones municipales es gravar legalmente un uso por una actividad netamente industrial consistente en transportar y distribuir energía eléctrica. En definitiva, el Tribunal Supremo ha determinado que este tipo de tasas se ajustan plenamente a las exigencias legales.

Por último, esta tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público local puede constituir una fuente de ingresos adicional y fundamental para nuestro Ayuntamiento. Además de asegurar un mayor retorno social vía recaudación fiscal de las actividades de las entidades privadas. Por todo ello, entendemos que el Ayuntamiento de Pasaia tiene la obligación de actuar responsablemente, ajustándose a derecho, regulando y aplicando esta nueva medida recaudatoria.

SOLICITUD

Por todo ello, el Grupo Municipal Puede Pasaia(k) Ahal Du solicita que se inicien los estudios y gestiones necesarias para la tramitación y aprobación, a través de la correspondiente ordenanza fiscal reguladora, de una tasa por la utilización o aprovechamiento del dominio público local por las empresas titulares de instalaciones de comunicación, transporte de energía eléctrica, gas o hidrocarburos en los términos de las sentencias del Tribunal Supremo que así lo avalan.

Pasaia, a 17 de Marzo de 2017.



Fdo. Nerea González Bastardo
Portavoz Puede Pasaia(k) Ahal Du